

ment. But herein lies the book's real contribution, for above all else it is a consummate translation. Not one of sources in other languages (primarily, Spanish, French and Basque) into English, although there is an element of that, but of a narrative languishing in the shadows of relative obscurity into a contemporary discourse by the simple fact of its framing within the quintessential vehicle of international communication in our globalized world – the English language. Like it or not, there is a sense in which only a Kurlansky was likely to achieve such a result.

And what is the magnitude of his success? To date *The Basque history of the world* (August 2000) has been through five editions and sold nearly 40,000 hardback copies. It is scheduled to come out in paperback shortly (Penguin). It has been highly promoted by its publisher and has resulted in many public book signings, lectures, and interviews throughout the United States, Great Britain and Canada. It has been translated into German and Dutch thus far, and will appear shortly in Spanish, Catalan and Basque. (Personal communication with the author). To place this in perspective, *The Basque history of the world* will have sold more copies than the more than forty titles of the Basque Book Series of the University of Nevada Press, produced over the past thirty years, combined. For those of us working in the anglophone corner of the vineyards of Basque Studies, and often frustrated by the difficulty of getting across the message, publication of this work, then, is most welcome. Indeed, in this divulgatory regard, all of Basque Studies owes a great debt of gratitude to Mark Kurlansky.

William A. Douglass



OLAZIREGI ALUSTIZA, Mari Jose

Intimismoaz haraindi: emakumezkoek idatzitako euskal literatura

77 orld. : ir. ; 24 cm. – Non: Oihenart. Cuadernos de Lengua y Literatura / Eusko Ikaskuntza. - Donostia. – N. 17(1999). – ISSN: 1137-4454. - ISBN: 84-8419-986-X

Intimismoaz haraindi: emakumezkoek idatzitako euskal literatura izenburupean M.^a Jose Olaziregi Alustizaren azken liburua kaleratu berri da, liburua 1998.ko Angel Apraiz Bekari esker burututako ikerlanaren emaitza izanik. Egileak liburu horrekin “euskal literaturaren munduan ahaztuxeak dauzkagun emakumeek idatzitako lanetara” hurbildu nahi izan duela adierazten du. Asmo horretarako Olaziregik bi euskal emakume idazleen lanak begiratu ditu, literatur-egile bakoitzari kapitulu bana eskainiz. Bi idazleak Mariasun Landak eta Arantxa Urretabizkaia dira. Ez ditu berak ordea soilik emakumeak direlako aukeratu, baizik eta beraiek eskaintzen dizkiguten munduak irakurle moduan estimatzen dituelako.

Olaziregin liburak gainera, berak dioskunez, “euskal literaturan emakumezkoek duten protagonismo eskasa salatu nahi du”. Honezbestez, liburuan badago egileak aitorturiko helburu aldarrikatzailea. Kutsu aldarrikatzaile horrek, horratio, ez dio Olaziregiren ikerlanari seriotasunik kentzen. Ezta indarrik ere, zeren eta Olaziregiren aztelanak abiapuntu teoriko sendoa baitu: jeneroaren sistemak ikertzen dituen, alegia.

Duela hogeitau urte EE.BB. betako unibertsitateetan sortua da jeneroaren sistemen ikerketa, eta handik Europako ikeguneetara zabaldu da. Ikeketa moeta honi jarai, ‘jenero’ hitzak hauxe ezagutarazi nahi du: biologian dauden ‘ar-emea’ sexuak kulturak ‘maskulino-femeninoa’ jenero-bereizketara dakartza. Bestela esanda, sexu-bereizketan oinarritutako ezaugarriak sozialki eta kulturalki nola lantzen diren ikerzen du jeneroak. Eta horixe da Olaziregiren lanaren abiapuntu teorikoa. Areago, “ikusuntu feministaz egindako saio baten aurrean” gaudela diosku egileak berak.

Liburua lau ataletan dago bananduta. Lehenengoan, kritika feminista zertan den adierazten du, feminismoaren garapena dela medio XX. mendean zehar izandako literatur kritika korronteak aztertzen dituelarik. Virginia Woolf idazlearen lanak gogora dakartzkigu Olaziregik, zeren eta Woolf-en entseguak idazlan aintzindariak baitira kritika feministaren esparruan, partikularzki *A Room of One’s Own* izenburukoa. Ondoren, Ipar Ameriketako egileek 1960. eta 1970. urteen hamarkadan teoria feministari ekarritako lanak eta emaitzak laburbiltzen ditu, besteak beste Kate Millet-en *Sexual Politics*, M. Ellmann-en *Thinking about Women*, E. Moers-en *Literary Women*, E. Showalter-en *A Literature of Their Own*, eta Gilbert & S. Gubar-en *The Madwoman in the Attic* azterlariak eta azterlanak. Frantziar ere jorratuta dago teoria feminista, Simone de Beauvoir-ren *Le deuxième sexe* liburuan bistan den modura. Simone de Beauvoir-ren teoria feministari ekarritako existenzialismo filosofikoaren ostean, kritika feminista berria sortzen da, batez ere 1968.ko maiatzean abiatutako mugimendu sozialek eraginda. Olaziregiren ustetan, teoria feminista frantziarra sendoagoa da, amerikarra baino. Frantziako teoria feministak eman dituen izenburu eta egileen artean, Olaziregik honako hauek ere aipatzen ditu: Hélène Cixous-en *Le rire de la méduse* Luce Irigaray-ren *Spéculum de l’autre femme*, eta Julia Kristevaren *La Révolution du langage poétique*.

Bigarren atalean euskal literaturan dauden emakume idazleaz mintzo da Olaziregi. Hauen presentzia oso urria dela onartu ondoren, urritasun honen arrazoietera hurbiltzen da bera. Atal berean, Olaziregi bi zerrenda osatzen ditu. Bat, literatur sarriena, emakume sarituen kopurua zenbaterainoka den jakiteko. Bestea, berriz, D.B.H.ko (Derrigorrezko Bigarren Hezkuntza) “euskal hizkuntza eta literatura” testu liburuak argitaratzen dituzten argitaletxeena, bertan aipatzen diren emakume idazleak zenbat eta zein diren erakutsi asmoz. Bi zerrendetan konfirmatu besterik ez da egiten emakumezkoek presentzia txikia euskal literaturan.

Mariasun Landaren literatur lanen azterketa da Olaziregiren hirugarren atala. Euskal idazleen artean emankorreenetakoa den honek (orain arte 20 liburu argitaratu ditu, *Nire eskua zurean* izenekoa delarik azkenekoa) haur eta gazteentzako literatura idazten du. Horixe da, behar bada, dio Olaziregik, Landaren literatur kalitatea askotan merizi duen adina errekonozitua ez izatearen arrazoiak. Asko dira eta literatur jenero horren balio txikia dela uste dutenak. Edota Olaziregik gogorarazten digun lez “bada literatura mota horren izaera artistikoa zalantzetan jartzen duen iritzi kritikoa eruditurik”.

Olaziregi ez dator bat sinismen horrekin, ezta gutxiagorik ere. Berak Landaren lanari zuzentzen dion begirada kritikoak agerian jartzen baitu idazlearen literatur ekarpen handi eta aberatsa. "Atxagarekin batera, nazioartean hedapenik handiena duen literaturaegilea", diosku berak Mariasun Landaren idazlanari buruz. Halare, Landaren literatur mamia bere balio osoan ikusteko, Olaziregiren begirada kritikoa ez da ohiko bideetara mugatu. Izan ere, osotasun hori errenago egongo litzateke Olaziregik bere begiradari "ikuspuntua feminista" ezarri izan ez balio. Ikuspuntu hori ohiko azterbidei gehietzeak balio erantsia ematen baitio Landaren literatur munduari. Ikusi nahi duenak aurkituko dion legez.

Begirada zorrotz eta kritiko berberarekin hurbiltzen da Olaziregi laugarren atalean Arantxa Urretabizkaiaren idazlana ikertzera. Landa ez bezala, Urretabizkaia poesia lanarekin sartu baldin bazen zen ere euskal literaturan (eta batzuen esanetan hor egon beraren orririk hoberenak), berak narratiban ibilbide literario aparta egin duela erakusten dute Olaziregiren gogoetak. Horrexegatik behar bada, Arantxaren poesiaz aipamen labur bat kenduta, Urretabizkaiaren narratibari dago zuzenduta Olaziregiren ausnarketa. Bost liburu dira guztira aztergai, tartean gazteentzako idatzi duen liburu bakarra ere dagoelarik, *Aurten aldatuko da nire bizitza* izenekoa. Halere, liburuen edukiei heldu aurretik, Olaziregik Arantxa Urretabizkaiaren konpromiso feministari ere tarte bat eskaintzen dio atal honetan, ezaguna delako feminismoarekin izan duen loturak sentsibiltate berizi bat erantsi diola bere liburuei. Bada gainera beste tarte bat literaturaz aparte, Urretabizkaiak komunikabideetan landu dituen esparru desberdinek aipatzeko.

Urretabizkaiaren ekarpen literarioarekin batera Olaziregik berean haren liburuek izan duten harrera (salmentetan, esaterako) eta jasotako kritikak gogora dakartza. Irregularra izan baita oso azken hauen hitza idazlearen lanaren aurrean. *Zergatik, Panpox?* izeneko lehenengo liburuarekin bizitako arrakasta ez du Urretabizkaiak beste lanekin berdindu. Idazlan guztien artean aipatzeko da halere Urretabizkaiak 1987an plazaratu zuen *Saturno* izenekoa. Liburua hau izan delako, Olaziregiren esanetan, euskal literatur garaikidearen historian kritikak okerren tratatuko nobela. Horrek ez zion Urretabizkaiari bere idazlana geldiarazi. Eta ordutik hona argitaratutako liburuetan bere literatura sendotzen eta hobetzen joan dela diotenenik badago. Urretabizkaiaren azken liburuan, *Koaderno gorria* izenekoan, daude Arantxaren orrialderik onenak, esan du Ibon Sarasolak. Olaziregik berak ere, haren beste liburuen literatur merituen aipamena luzatu ostean, nobela hau iradokitzailea aurkitzen duela diosku.

Eskuartean dugun Olaziregiren saioak badu bere amaieran osagarri bibliografiko lagungarria aztergai dugun gaiarekiko, lau sailetan antolatuta duena. Orokorrena den lehenengoan, emakumeek idatzitako literaturari buruzko azterlanak jasotzen dira. Zerrenda hau, kritika feminista izeneko lerro teorikopean osatuta dago. Bigarren, euskal emakumeek idatzitako kritiken izenburuak zein egileen izenak agertzen dira. Hirugarren, Arantxa Urretabizkaiari buruzko tituluak bildu ditu Olaziregik. Azkenik eta bukatzeko Mariasun Landari dagozkionak.

Karmen Larrañaga